

**2013ko azaroak 13ko aktan jasotako** Foroaren lehen adostasuna Tolosako Udaleko ordezkari politikoekin izandako bilerari begira:

*“Tolosan pertsona anitzez osaturiko talde bat lanean ari da. Nahiz eta sentsibiltate politiko desberdinetakoak izan, ez dugu ordezkari politiko bezala parte hartzen, pertsonal mailan baizik. Elkarrekin lanean hastera bultzatu gaituena bizikidetza sustatzeko beharraren kezka izan da. Tolosako bizikidetzan eragiteko borondatea dugu eta horretarako elkartzen jarraituko dugu, elkarri errespetuz entzuten, elkar ezagutzen, elkarrekin zerbaitetara iristeko. Udalak abian jarri ditzakeen ekimenen osagarriak izan gaitzke, gure artean ez baititugu alderdiek izan ditzaketen oztopoak. Azkenik, Udalarekin komunikazio bide bat izan nahi dugu, emango ditugun urratsetan laguntzen jarraitu gaitzan.”*